

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

ESKOLA-ADINEKO KIROLAREN BALIO SOZIAL ETA EKONOMIKOA, BESTE JARDUERA BATZUEKIN ALDERATUTA

VALOR SOCIAL Y ECONÓMICO
DEL DEPORTE EN EDAD ESCOLAR
EN COMPARATIVA CON OTRAS
ACTIVIDADES

2024

© Eusko Jaurlaritza
eta Bizkaiko Foru Aldundia, 2024ko Urria

**KOORDINAZIOA ETA EDIZIOA /
COORDINACIÓN Y EDICIÓN:**

Eusko Jaurlaritzako jarduera fisiko eta kirol zuzendaritza
eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila
Dirección de actividad física y deporte del Gobierno Vasco
y Departamento de Euskera, Cultura y Deporte
de la Diputación Foral de Bizkaia

**ZUZENDARITZA /
DIRECCIÓN:**

Eusko Jaurlaritzako jarduera fisiko eta kirol zuzendaritza
eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzua.
Jon Iriberrí eta Javier de María García
Dirección de actividad física y deporte del Gobierno Vasco
y Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.
Jon Iriberrí y Javier de María García

**IKERKETA TALDEA /
EQUIPO DE INVESTIGACIÓN:**

Gaia Ikerketa

**ARGAZKIAK /
FOTOGRAFÍAS:**

Argitalpen honetan erabilitako irudiak egile-eskubideek babestuta daude.
Haien baimenik gabeko erreprodukzioa edo erabilera debekatuta dago

Las imágenes utilizadas en esta publicación están protegidas por derechos de autor.
Su reproducción o uso sin autorización está prohibida

**DISEINUA /
DISEÑO:**

Lantegi Batuak



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ESKOLA-ADINEKO KIROLAREN BALIO SOZIAL ETA EKONOMIKOA, BESTE JARDUERA BATZUEKIN ALDERATUTA

VALOR SOCIAL Y ECONÓMICO
DEL DEPORTE EN EDAD ESCOLAR
EN COMPARATIVA CON OTRAS
ACTIVIDADES

2024



AURKIBIDEA

ÍNDICE

1 Aurkezpena	
Presentación	7
2 Metodologia	
Metodologia	9
3 Emaitzak	
Resultados	11
3.1 Gastuaren analisia	
Análisis del gasto	13
3.2 Kirol-jarduerak	
Actividades deportivas	22
3.3 Kirolekoak ez diren jarduerak	
Actividades no deportivas	26
3.4 Familiaren tamainaren araberaren analisia	
Análisis según tamaño de familia	29
3.5 Entrenatzaileak, monitoreak, irakasleak	
Entrenadores/as, monitores/as, profesorado	41
4 Ondorio orokorrak	
Conclusiones generales	47







1 AURKEZPENA

PRESENTACIÓN

Azterlan honek derrigorrezko eskola-adineko haurren familientzako kirolaren balio sozial eta ekonomikoa alderatzen eta aztertzen du, eskolaz kanpoko beste jarduera batzuekin alderatuta.

Este estudio trata sobre la comparativa y análisis del valor social y económico del deporte para las familias de niños y niñas en edad escolar obligatoria, en comparación con otras actividades extraescolares.





2 METODOLOGIA METODOLOGÍA

Guztira 601 inkesta pertsonal egin dira. 6 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten 58000 etxeko unibertsoan, errore-marjina hau da: $e = \pm \% 3,9$ (% 95,5eko konfiantza-mailarako, % 2σ -ko konfiantza-mailarako μ , $p = q = 0,5$ izanik), multzoaren gainean egin nahi diren estimazio .guztietarako.

Se han realizado un total de 601 encuestas personales. Para un universo de 58000 hogares con hijas e hijos de entre 6 y 16 años, el margen de error es $e = \pm 3,9\%$ (para un nivel de confianza del 95,5%, 2σ respecto de μ , siendo $p = q = 0,5$) para todas las estimaciones que se quieran realizar sobre el conjunto.



Guztira Bizkaiko 601 familiatako 896 adingabe aztertu dira, 6 eta 16 urte bitartekoak (derrigorrezko eskolatzeko adina: lehen eta bigarren hezkuntzako zikloak).

Horretarako, elkarrizketa pertsonalak egin zaizkie kalean bertan gutxienez seme edo alaba bat lehen edo bigarren hezkuntzan duten eta adingabeak gutxienez kirol bat egiten duen gurasoei.

Se han analizado un total de 896 menores, de 601 familias de Bizkaia, de entre 6 y 16 años (edad de escolarización obligatoria: ciclos de primaria y secundaria).

Para ello, se han realizado entrevistas personales a pie de calle a padres y madres que tuvieran al menos un hijo o hija cursando primaria o secundaria y que esa hija o hijo practicara al menos un deporte.



3 EMAITZAK RESULTADOS


Aztertutako familietako 6-16 urteko seme-alaba kopuruaren araberako banaketa:

Distribución por número de hijos e hijas de entre 6 y 16 años de las familias analizadas:

Seme-alaba kopurua Número de hijos e hijas	Zk. Nº	%
1	337	56,1
2	236	39,3
3	25	4,2
4	3	0,5
Guztira Total	601	100

Zer generorekin identifikatzen da zure semea edo alaba? (%)

¿Con qué género se identifica tu hijo o hija? (%)




Zenbat urte ditu zure semeak edo alabak? (%)

¿Cuántos años tiene tu hijo o hija? (%)

Batez besteko
adina
Edad media

11



3.1 Gastuaren analisia

Análisis del gasto

Hileko batez besteko gastua, seme-alaba bakoitzeko, jarduera-motaren arabera:

Gasto mensual medio por hijo o hija según tipo de actividad:




Kirol-jardueretako hileko batez besteko gastua, semearen edo alabaren generoaren arabera:

Gasto mensual medio en actividades deportivas según género del hijo o hija:



Hileko batez besteko gastua **FUTBOLEAN** (gehien egiten den kirol-jarduera):

Gasto mensual medio en **FÚTBOL** (actividad deportiva más practicada):






Hileko batez besteko gastu banakatua **SASKIBALOIAN** (gehien egiten den bigarren kirol-jarduera):

Gasto mensual medio desglosado en **BALONCESTO** (segunda actividad deportiva más practicada):



Hileko batez besteko gastua **IGERIKETAN** (gehien egiten den hirugarren kirol-jarduera):

Gasto mensual medio en **NATACIÓN** (tercera actividad deportiva más practicada):



Hileko batez besteko gastu banakatua **IGERIKETAN** (gehien egiten den hirugarren kirol-jarduera):

Gasto mensual medio desglosado en **NATACIÓN** (tercera actividad deportiva más practicada):



Seme-alaba bakoitzeko hileko batez besteko gastua, familia-unitatearen urteko diru-sarrera gordinen arabera:

Gasto mensual medio por hijo o hija según ingresos brutos anuales de la unidad familiar:


KIROL-JARDUERETAN EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS



Seme-alaba bakoitzeko hileko batez besteko gastua, familia-unitatearen urteko diru-sarrera gordinen arabera:

Gasto mensual medio por hijo o hija según ingresos brutos anuales de la unidad familiar:


KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERETAN EN ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS






Kirol-jardueretako eta kirolaz kanpoko jardueretako gastuari buruzko iritzia: (%)

Opinión sobre el gasto en actividades deportivas y actividades no deportivas: (%)




Zure semeak edo alabak egiten dituen jarduerak egun ordaintzen duzuna baino % 50 gehiago balio balute, eta, horrela, hobekuntza batzuk lortuko bazenitu, zure semea edo alaba bertan inskribatuta mantenduko zenuke? (%)

Si las actividades que practica tu hijo o hija costasen un 50% más de lo que pagas actualmente, obteniendo así una serie de mejoras, ¿mantendrías a tu hijo o hija inscrito en ellas? (%)



Imajinatuko dugu kirol-jarduerak eta beste jarduerak bat datozela egun eta ordu berean, eta, gainera, prezio bera dutela. Bietako zeini emango zenioke izena zure semeari edo alabari, horietako bat bakarrik aukeratu ahal izango bazenu?

Vamos a imaginar que las actividades deportivas y las otras actividades coinciden en el mismo día y a la misma hora y que, además, tienen el mismo precio, ¿a cuál de los dos tipos le apuntarías si sólo pudieses elegir uno de ellos?



Derrigorrezko eskola-adineko haurrentzako kirol-jardueretan eta kirolaz kanpoko jardueretan egindako gastuaren azterketan oinarrituta, hainbat ondorio atera daitezke:

Con base en el análisis del gasto en actividades deportivas y no deportivas para niños y niñas en edad escolar obligatoria, se pueden extraer varias conclusiones:

1. GASTU KONPARATIBOA GASTO COMPARATIVO

Seme-alaba bakoitzeko batez besteko hileko gastua, kirol-jardueretan, nabarmen txikiagoa da (43,7 euro), kirolekoak ez diren jardueretan egindako gastuarekin alderatuta (68,2 euro). Horrek iradokitzen du familiek ekonomikoki eskuragarriagozat jotzen dituztela kirol-jarduerak.

Futbola da gehien egiten den kirol-jarduera, eta diziplina horretako batez besteko gastua, oro har, kirol-jardueretako batez besteko gastua baino txikiagoa da.

El gasto mensual medio por hijo o hija en actividades deportivas es significativamente menor (43,7 euros) en comparación con actividades no deportivas (68,2 euros). Esto sugiere que las actividades deportivas son percibidas como más accesibles económicamente por las familias.

El fútbol es la actividad deportiva más practicada, y el gasto medio en esta disciplina es inferior al gasto promedio en actividades deportivas en general.



2. GENEROAREN ARABERAKO GASTUAREN ALDEAK DIFERENCIAS DE GASTO POR GÉNERO

Aldeak txikiak badira ere, kirol-jardueretako hileko batez besteko gastua zertxobait handiagoa da alabetan (44,1 euro) semeetan baino (43,3 euro). Horrek emakumeen kirol-partaidetzan inbertsio handiagoa egitea iradoki lezake, eta hori azterketa honetan feminizatuta aurkezten diren kirol motagatik izan daiteke (patinajea, surfa eta hockeya, besteak beste).

Aunque las diferencias son leves, el gasto mensual medio en actividades deportivas es ligeramente más alto en hijas (44,1 euros) que en hijos (43,3 euros). Esto podría indicar una mayor inversión en la participación deportiva femenina, lo que puede ser debido al tipo de deportes que se presentan feminizados en este estudio (como el patinaje, el surf y el hockey entre otros).

3. DIRU-SARREREN ETA GASTUAREN ARTEKO ERLAZIOA RELACIÓN ENTRE INGRESOS Y GASTO

Korrelazio positiboa dago familia-unitatearen urteko diru-sarrera gordinen eta kirol-jardueretako gastuaren artean. Diru-sarrerak handitu ahala, gastuak ere gora egiten du jarduera horietan, eta horrek esan nahi du finantza-baliabide handiagoak dituzten familiek gaitasun handiagoa dutela seme-alabentzat kirolean inbertitzeko.

Existe una correlación positiva entre los ingresos brutos anuales de la unidad familiar y el gasto en actividades deportivas. A medida que los ingresos aumentan, también lo hace el gasto en estas actividades, lo que muestra que las familias con mayores recursos financieros tienen más capacidad para invertir en deportes para sus hijos e hijas.

4. KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUEREKIKO ALDERAKETA COMPARACIÓN CON ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS

Diru-sarrera txikienak dituzten familiek baliabide gutxiago bideratzen dituzte kirol-jardueretara kirolekoak ez diren jardueretara baino. Horrek iradokitzen du kirolekoak ez diren jarduerak garestiagoak izan daitezkeela familia horientzat, termino erlatiboetan.

Las familias con ingresos más bajos destinan menos recursos a actividades deportivas que a actividades no deportivas. Esto sugiere que las actividades no deportivas podrían percibirse como más costosas en términos relativos para estas familias.

5. GASTUARI BURUZKO PERTZEPZIOAK PERCEPCIONES SOBRE EL GASTO

Gastuan aldeak dauden arren, familia gehienek egokitzat jotzen dute kirol-jardueretako gastua (% 69,1), eta zertxobait handiagoa den portzentaje batek egokitzat jotzen du kirolekoak ez diren jardueretako gastua (s% 69,8). Horrek bi kategorietan inbertsiorako pertzepzio orokor positiboa adierazten du.

A pesar de las diferencias en el gasto, la mayoría de las familias considera adecuado el gasto en actividades deportivas (69,1%), mientras que un porcentaje ligeramente superior considera adecuado el gasto en actividades no deportivas (69,8%). Esto indica una percepción general positiva hacia la inversión en ambas categorías.

6. GEHIAGO ORDAINTZEKO PRESTASUNA: DISPOSICIÓN A PAGAR MÁS

Familiek nahiago dute % 50 gehiago ordaindu kirol-jarduerengatik (% 73) kirolekoak ez diren jarduerengatik (% 63,7) baino. Horrek esan nahi du gehiago baloratzen direla kirolaren esparruan egon daitezkeen hobekuntzak.





La disposición de las familias a pagar un 50% más por las actividades, con la expectativa de mejoras, es mayor en actividades deportivas (73%) que en actividades no deportivas (63,7%). Esto muestra una mayor valoración de las mejoras potenciales en el ámbito deportivo.

7. HAUTATZEKO ERABAKIA DECISIÓN DE ELECCIÓN

Egun berean kirol-jarduerak eta kirolekoak ez direnak aukeratzearen aurrean, prezio berean, familien % 59,3k kirol-jarduerak aukeratuko lituzke, eta % 40,7k kirolekoak ez direnak. Emaitza horiek adierazten dute lehentasuna ematen zaiela kirol-jarduerari, egun, ordu eta kostuei dagokienez berdintasun-baldintzak daudenean.

Ante la elección hipotética de actividades deportivas y no deportivas en el mismo día, al mismo precio, un 59,3% de las familias optaría por las actividades deportivas, mientras que un 40,7% elegiría las no deportivas. Estos resultados indican una preferencia mayoritaria hacia las actividades deportivas cuando se presentan condiciones de igualdad en términos de día, hora y costo.

Analisiaren arabera, eskola-adinean dauden haurrentzako kirol-jardueretan batez besteko gastua txikiagoa da kirolekoak ez diren jardueretan baino. Familia-diru-sarreren eta kirol-jardueretako gastuaren arteko erlazio positiboa ikusten da, eta baliabide handiagoak dituzten familiek gehiago inbertitzeko joera dutela adierazten da. Familiek bi kategorietako gastua egokitzat jotzen badute ere, hobekuntzengatik gehiago ordaintzeko prestasuna handiagoa da kirol-jardueretan. Aurkikuntza horiek kirolean inbertitzeari buruzko pertzepzio positiboak iradokitzen dituzte, eta haien erakargarritasun ekonomikoa nabarmentzen da eskolaz kanpoko beste jarduera batzuekin alderatuta.


El análisis revela que el gasto promedio en actividades deportivas para niños y niñas en edad escolar es menor que en actividades no deportivas. Se observa una relación positiva entre ingresos familiares y gasto en actividades deportivas, indicando que familias con mayores recursos tienden a invertir más. Aunque las familias consideran adecuado el gasto en ambas categorías, la disposición a pagar más por mejoras es más alta en actividades deportivas. Estos hallazgos sugieren percepciones positivas hacia la inversión en deportes, destacando su atractivo económico en comparación con otras actividades extraescolares. Además se observa la preferencia mayoritaria hacia las actividades deportivas cuando se presentan condiciones de igualdad en términos de día, hora y costo.

3.2 Kirol-jarduerak

Actividades deportivas

KIROLIK EGITEN AL DU? (%)

¿PRACTICA ALGÚN DEPORTE? (%)



EGINDAKO KIROLAK (ERANTZUN ANIZKOITZA)

DEPORTES PRACTICADOS (RESPUESTA MÚLTIPLE)

	%		%
Futbola / Fútbol	45,8	Txirrindularitza / Ciclismo	0,4
Saskibaloia / Baloncesto	19,5	Waterpolo	0,4
Igeriketa / Natación	13,5	Arrauna / Remo	0,3
Eskubaloia / Balonmano	7,4	Pala	0,3
Dantza / Baile, danza	7,0	Mahai tenisa / Tenis de mesa	0,3
Arte martzialak / Artes marciales	6,3	Skate	0,3
Aletismo	5,1	Aretoa futbola / Fútbol sala	0,2
Kickboxing boxeo	2,3	Arku / Arco	0,2
Eskupilota / Pelota mano	2,2	Fitness	0,2
Gimnastika erritmikoa / Gimnasia rítmica	1,9	Piraguismo / Piragüismo	0,2
Patinaje	1,6	Snowboard, ski	0,2
Surf	1,6	Zesta punta / Cesta punta	0,2
Xake / Ajedrez	1,6	Aerobik / Aeróbic	0,1
Tenis	1,2	Badminton	0,1
Eskalada / Escalada	1,1	Borroka olimpiko nagusia /	
Hockey	1,0	Lucha mayor olímpica	0,1
Errugbi / Rugby	0,9	Crossfit	0,1
Gimnasia, muskulazioa /		Frontenis	0,1
Gimnasio, musculación	0,8	Spinning	0,1
Padel	0,8	Triatloi / Triatlón	0,1
Multikirola / Multideporte	0,6	Xendazaletasun / Senderismo	0,1
Boleibol / Voleibol	0,4	Yoga	0,1
Hipika / Hípica	0,4	Zumba	0,1



GEHIEN EGITEN DITUZTEN KIROLAK DEPORTES QUE MÁS PRACTICAN


Haurren % **45,8k FUTBOLA** egiten du, % **19,5ek SASKIBALOIA** eta % **13,5ek IGERIKETA**. Gainerako kirolak % 10 baino gutxiagok egiten dituzte.

1. **Futbole** aritzen direnen % **68 mutilak dira**, eta % **32 neskak**.
2. **Saskibaloian** aritzen direnen % **60,6 neskak dira**, eta % **39,4 mutilak**.
3. **Igeriketan** aritzen direnen % **53,8 mutilak dira**, eta % **46,2 neskak**.

El **45,8%** de los niños y niñas **practica FÚTBOL**, el **19,5%** **practica BALONCESTO** y el **13,5% NATACIÓN**. Los demás deportes son practicados por menos del 10%.

1. El **68%** de quienes practican fútbol **son niños**, frente al **32%** que **son niñas**.
2. El **60,6%** de quienes practican **baloncesto son niñas**, frente al **39,4%** que **son niños**.
3. El **53,8%** de quienes practican natación **son niños**, frente al **46,2%** que **son niñas**.


KIROL-JARDUERAK GENEROAREN ARABERA (%) PRÁCTICAS DEPORTIVAS POR GÉNERO (%)




Zeintzuk dira zure semea edo alaba kirolen bat egiteko izena emateko bi arrazoi nagusiak? (%)

¿Cuáles son los dos principales motivos por los que inscribes a tu hijo o hija para practicar algún deporte? (%)

LEHENENGO ARRAZOA
PRIMER MOTIVO




BIGARREN ARRAZOA
SEGUNDO MOTIVO





Zein da kirolari ematen diozun balioa, zure semearen edo alabaren bizitzarako? (%)

¿Cuál es el valor que le das al deporte para la vida de tu hijo o hija? (%)



KIROL JARDUERAK ACTIVIDADES DEPORTIVAS

Haurren % 86,8k ikastetxetik kanpoko kirol-jardueretan parte hartzen du, eta jarduera horren prebalentzia handia nabarmentzen da. Futbola da kirolik praktikatuena, % 45,8ko partaidetzarekin, ondoren saskibaloia (% 19,5) eta igeriketa (% 13,5).

Praktikari dagokionez, generoaren arabera: futbola gehienbat hurrek egiten dute (% 68). Saskibaloian neskak dira nagusi (% 60,6). Igeriketak hurrenganako joera txikia erakusten du (% 53,8). Gehien egiten diren 12 kirol-jardueretatik, generoagatiko lehenetsuek alde nabarmenak ikusten dira honako diziplina hauetan: eskubaloia, dantza/dantza, arte marzialak, atletismoa, kick boxing/boxeo, esku-pilota, patinajea eta surfa.

Seme-alabak kiroletan inskribatzeko motibazioei dagokienez, arrazoi nagusia da hurrek hala eskatu dutela, eta, ondoren, osasun fisiko eta mentalerako onurei buruzko pertzepzioa.

Seme-alaben bizitzarako kirolari esleitutako balioari dagokionez, familien % 69,2k kirol-jardueretan parte hartzeari balio handia ematen dio. Emaitza horiek adierazten dute hautemate positiboa eta lotura handia dagoela kirol-jardueren eta haurren osasunerako eta ongizaterako onuren artean.

El 86,8% de los niños y niñas participa en actividades deportivas fuera del centro escolar, destacando la alta prevalencia de esta práctica. El fútbol es el deporte más popular, con un 45,8% de participación, seguido por baloncesto (19,5%) y natación (13,5%).

En cuanto a la práctica por género: Fútbol es mayoritariamente practicado por niños (68%). Baloncesto tiene una participación dominada por niñas (60,6%). Natación muestra una ligera inclinación hacia los niños (53,8%). De las 12 actividades deportivas más practicadas, se observan diferencias notables en la preferencia por género en disciplinas como balonmano, baile/danza, artes marciales, atletismo, kick boxing/boxeo, pelota mano, patinaje y surf.

En cuanto a las motivaciones para inscribir a los hijos e hijas en deportes, la razón principal es que los niños y niñas lo han solicitado, seguido por la percepción de beneficios para la salud física y mental.


En relación con el valor asignado al deporte para la vida de los hijos e hijas, el 69,2% de las familias atribuye un alto valor a la participación en actividades deportivas. Estos resultados indican una percepción positiva y una fuerte conexión entre las actividades deportivas y los beneficios para la salud y el bienestar de los niños y niñas.

3.3 Kirolekoak ez diren jarduerak

Actividades no deportivas

Zure semeak edo alabak kirolaz kanpoko jarduerarik egiten al du ikasturtean zehar? (%)

¿Tu hijo o hija practica alguna otra actividad no deportiva durante el curso? (%)



EGITEN DITUZTEN KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK

ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS QUE PRACTICAN

Haurren % 42,4 **INGELESEKO** klaseetara joaten da, eta % 6,9 **MUSIKARA**.

Gainerako jarduerak % 4 baino gutxiagok egiten dituzte.

El **42,4%** de los niños y niñas **acude a clases de INGLÉS** y el **6,9%** de **MÚSICA**. Las demás actividades son realizadas por menos del 4%.

EGITEN DITUZTEN KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK ERANTZUN ANIZKOITZA


ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS QUE PRACTICAN (RESPUESTA MÚLTIPLE)

	%		%
Ingeles / Inglés	42,4	Zientzia, fisika ,kimika /	
Musika / Música	6,9	Ciencia, física, química	0,6
Euskera, frantses , aleman /		Abesbatza / Coro	0,4
Euskera, francés, alemán	3,3	Gitarra / Guitarra	0,4
Margolaritza / Pintura	2,7	Sukaldaritza / Cocina	0,4
Errefortzu klaseak / Clases de refuerzo	1,8	Katekesi / Catequesis	0,3
Antzerki / Teatro	1,5	Pandero	0,3
Robotika / Robótica	1,5	Trikitixa	0,3
Arte, eskulanak / Arte, manualidades	1,0	Informatika / Informática	0,2
Marrazketa / Dibujo	0,8	Joskintza, moda / Costura, moda	0,2
Zirku / Circo	0,8	Aisialdia / Tiempo libre	0,1
Matematika / Matemáticas	0,7	Bertsolaritza	0,1
Piano	0,7	Biolin / Violín	0,1
		Skaut	0,1


Zeintzuk dira zure semea edo alaba kirolekoak ez diren jarduera horietan izena emateko bi arrazoi nagusiak (%)

¿Cuáles son los dos principales motivos por los que inscribes a tu hijo o hija para practicar esas actividades no deportivas? (%)

LEHENENGO ARRAZOA PRIMER MOTIVO



BIGAREN ARRAZOA SEGUNDO MOTIVO





KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS

Haurren % 48,9k eskolatik kanpoko kirolaz kanpoko jardueretan parte hartzen du. Jarduera ohikoenak ingeleseko (% 42,4) eta musikako (% 6,9) eskolak dira, eta beste jarduera batzuek % 4tik beherako partaidetza dute.

Seme-alabak kirolekoak ez diren jardueretan inskribatzeko motibazioei dagokienez, familien % 78,1ek adierazi du arrazoi nagusia prestakuntza akademikoa hobetzea dela.

Emaizta horien arabera, kirolekoak ez diren jardueren kasuan, prestakuntza akademikoa hobetzea da haurrak jarduera horietan izena emateko motibazio ia bakarra. Ingeleseko klaseetan parte hartzea da jarduera-multzo honetako aukera nagusia.

Un 48,9% de los niños y niñas participa en actividades no deportivas fuera del centro escolar. Las actividades más comunes son clases de inglés (42,4%) y música (6,9%), mientras que otras actividades tienen una participación inferior al 4%.

En cuanto a las motivaciones para inscribir a los hijos e hijas en actividades no deportivas, el 78,1% de las familias señala que el principal motivo es mejorar la formación académica.

Estos resultados sugieren que, en el caso de las actividades no deportivas, la mejora en la formación académica es prácticamente la única motivación para inscribir a los niños y niñas en estas actividades. La participación en clases de inglés destaca como la opción mayoritaria en este bloque de actividades.

3.4 Familiaren tamainaren araberaren analisia

Análisis según tamaño de familia

Laginaren zati esanguratsu batek derrigorrezko hezkuntzako adinean dagoen seme edo alaba bakarra duela ikusita, familia mota hori eta adin-tarte horretan bi seme-alaba edo gehiago dituztenak (6-16 urte) bereizita aztertzea erabaki da, bi egoeren artean alde esanguratsuak dauden egiaztatzeko.

Al observar que una parte significativa de la muestra tiene únicamente un hijo o hija en edad de educación obligatoria, se decide analizar por separado este tipo de familia y aquellas que tienen dos o más hijos e hijas en esta franja de edad (6-16 años), para comprobar si existen diferencias significativas entre ambas situaciones.

1. 6-16 URTEKO SEME EDO ALABA BAT DUTEN FAMILIAK FAMILIAS CON UN HIJO O HIJA DE 6-16 AÑOS

6 eta 16 urte bitarteko **seme-alaba bakarra duten 337 familia** aztertu dira.

Se han analizado **337 familias con un hijo o hija** de entre 6 y 16 años.

ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA (%) DISTRIBUCIÓN POR EDAD Y GÉNERO (%)

	Mutila Chico	Neska Chica	Guztira Total
6	6,5	3,6	5,0
7	11,8	8,9	10,4
8	13,6	9,5	11,6
9	7,1	11,3	9,2
10	10,7	8,3	9,5
11	8,3	8,3	8,3
12	7,7	7,7	7,7
13	5,9	3,6	4,8
14	12,4	19,7	16
15	10,7	13,7	12,2
16	5,3	5,4	5,3
Guztira Total	100	100	100




EGITEN DITUZTEN KIROLAK (ERANTZUN ANIZKOITZA) DEPORTES QUE PRACTICAN (RESPUESTA MÚLTIPLE)

	%		%
Futbola / Fútbol	41,5	Hipika / Hípica	0,6
Saskibaloia / Baloncesto	20,8	Hockey	0,6
Igeriketa / Natación	16,3	Pala	0,6
Eskubaloia / Balonmano	11,0	Skate	0,6
Arte martzialak / Artes marciales	9,5	Aerobik / Aeróbic	0,3
Dantza / Baile, danza	5,9	Txirindularitza / Ciclismo	0,3
Atletismo	4,5	Crossfit	0,3
Eskupilota / Pelota mano	2,4	Eskalada / Escalada	0,3
Kick boxing, boxeo	2,1	Borroka olinpiko nagusia /	
Gimnastika erritmikoa / Gimnasia rítmica	1,8	Lucha mayor olímpica	0,3
Tenis	1,8	Mahai tenisa / Tenis de mesa	0,3
Xake / Ajedrez	1,5	Piraguismo / Piragüismo	0,3
Gimnasia, muskulazioa /		Arrauna / Remo	0,3
Gimnasio, musculación	1,5	Spinning	0,3
Patinaje	1,2	Surf	0,3
Errugbi / Rugby	1,2	Boleibol / Voleibol	0,3
Multikirola / Multideporte	0,9	Waterpolo	0,3
Padel	0,9	Zumba	0,3

Zure semeak edo alabak egiten dituen kirol-jarduerak egun ordaintzen duzuna baino % 50 gehiago balio balute, eta, horrela, hobekuntza batzuk lortuko bazenitu, zure semea edo alaba bertan inskribatuta mantenduko zenuke? (%)


Si las actividades deportivas que practica tu hijo o hija costasen un 50% más de lo que pagas actualmente, obteniendo así una serie de mejoras, ¿mantendrías inscrito a tu hijo o hija en ellas? (%)




Zeintzuk dira zure semea edo alaba kirolen bat egiteko izena emateko bi arrazoi nagusiak? (%)

¿Cuáles son los dos principales motivos por los que inscribes a tu hijo o hija para practicar algún deporte? (%)

LEHENENGO ARRAZOA
PRIMER MOTIVO




BIGARREN ARRAZOA
SEGUNDO MOTIVO



Zein da kirolari zure semearen edo alabaren bizitzarako ematen dion balioa (%)

¿Cuál es el valor que le das al deporte para la vida de tu hijo o hija? (%)



EGITEN DITUZTEN KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS QUE PRACTICAN

Haur horien % **41,8 INGELESEKO klaseetara** joaten da, % **5,3 MUSIKARA** eta **beste% 5,3 beste hizkuntza batzuetako klaseetara** (euskara, frantsesa, alemana). Gainerako jarduerak % 4 baino gutxiagok egiten dituzte.

El **41,8%** de estos niños y niñas **acude a clases de INGLÉS**, el **5,3% de MÚSICA** y otro **5,3% a clases de otros idiomas (euskera, francés, alemán)**. Las demás actividades son realizadas por menos del 4%.






EGITEN DITUZTEN KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK (ERANTZUN ANIZKOITZA)
ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS QUE PRACTICAN (RESPUESTA MÚLTIPLE)

	%		%
Ingeles / Inglés	41,8	Abesbatza / Coro	0,6
Musika / Música	5,3	Gitarra / Guitarra	0,6
Euskera, frantses , aleman / Euskera, francés, alemán	5,3	Bertsolaritza	0,3
Margolaritza / Pintura	3,3	Matematika / Matemáticas	0,3
Errefortzu klaseak / Clases de refuerzo	2,1	Pandero	0,3
Robotika / Robótica	2,1	Piano	0,3
Antzerki / Teatro	1,5	Skaut	0,3
Arte, eskulanak / Arte, manualidades	1,2	Sukaldaritza / Cocina	0,3
Marrazketa / Dibujo	0,9	Zirku / Circo	0,3

Imajinatuko dugu kirol-jarduerak eta beste jarduerak bat datozela egun eta ordu berean, eta, gainera, prezio bera dutela. Bietako zeini emango zenioke izena zure semeari edo alabari, horietako bat bakarrik aukeratu ahal izango bazenu?

Vamos a imaginar que las actividades deportivas y las otras actividades coinciden en el mismo día y a la misma hora y que, además, tienen el mismo precio, ¿a cuál de los dos tipos le apuntarías si sólo pudieses elegir uno de ellos?



2. 6-16 URTEKO SEME-ALABA BI EDO GEHIAGO DITUZTEN FAMILIAK FAMILIAS CON DOS O MÁS HIJOS O HIJAS DE 6-16 AÑOS

6 eta 16 urte bitarteko **bi seme-alaba edo gehiago dituzten 264 familia** aztertu dira, guztira 559 haur.

Se han analizado **264 familias con dos o más hijos o hijas** de entre 6 y 16 años, que suman un total de **559 niños y niñas**.

ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA (%) DISTRIBUCIÓN POR EDAD Y GÉNERO (%)

	Mutila Chico	Neska Chica	Guztira Total
6	7,1	3,2	5,4
7	7,7	0,7	8,6
8	9,3	12,6	10,7
9	11,2	11,3	11,3
10	10,2	8,1	9,3
11	10,2	12,2	11,1
12	11,9	13,4	12,5
13	9,3	10,1	9,7
14	8	9,3	8,6
15	9,0	7,3	8,2
16	6,1	2,8	4,6
Guztira Total	100	100	100



HILEKO BATEZ BESTEKO GASTUA SEME EDO ALABA BAKOITZEKO GASTO MENSUAL MEDIO POR HIJO O HIJA


43,3
€

Kirol-jardueretan
En actividades deportivas


66,2
€

irolekoak ez diren jardueretan
En actividades no deportivas

KIROLIK EGITEN AL DU? (%) ¿PRACTICA ALGÚN DEPORTE? (%)



EGITEN DITUEN KIROLAK KOPURUA (%) NÚMERO DE DEPORTES QUE PRACTICA (%)



GEHIEN EGITEN DITUZTEN KIROLAK DEPORTES QUE MÁS PRACTICAN

Haur horien % **48,3k** **FUTBOLA** egiten du, % **18,8k** **SASKIBALOIA**, eta % **11,8k** **IGERIKETA**. Gainerako kirolak % 10 baino gutxiagok egiten dituzte.

El **48,3%** de estos niños y niñas **practica FÚTBOL**, el **18,8%** **practica BALONCESTO** y el **11,8%** **practica NATACIÓN**. Los demás deportes son practicados por menos del 10%.




EGITEN DITUZTEN KIROLAK (ERANTZUN ANIZKOITZA) DEPORTES QUE PRACTICAN (RESPUESTA MÚLTIPLE)

	%		%
Futbola / Fútbol	48,3	Boleibol / Voleibol	0,5
Saskibaloi / Baloncesto	18,8	Txirrindularitza / Ciclismo	0,5
Igeriketa / Natación	11,8	Waterpolo	0,5
Dantza / Baile, danza	7,7	Areto futbola / Fútbol sala	0,4
Atletismo	5,5	Arku / Arco	0,4
Eskubaloi / Balonmano	5,2	Arrauna / Remo	0,4
Arte martzialak / Artes marciales	4,3	Multikirola / Multideporte	0,4
Kick boxing, boxeo	2,5	Fitness	0,4
Surf	2,3	Hipika / Hípica	0,4
Eskupilota / Pelota mano	2,1	Mahai tenisa / Tenis de mesa	0,4
Gimnastika erritmikoa / Gimnasia rítmica	2,0	Snowboard, ski	0,4
Patinaje	1,8	Zesta punta / Cesta punta	0,4
Eskalada / Escalada	1,6	Pala	0,2
Xake / Ajedrez	1,6	Piraguismo / Piragüismo	0,2
Hockey	1,3	Skate	0,2
Tenis	0,9	Badminton	0,2
Gimnasia, muskulazioa /		Frontenis	0,2
Gimnasio, musculación	0,4	Xendazaletasun / Senderismo	0,2
Errugbi / Rugby	0,7	Triatlói / Triatlón	0,2
Padel	0,7	Yoga	0,2

Zure semeak edo alabak egiten dituen kirol-jarduerak egun ordaintzen duzuna baino % 50 gehiago balio balute, eta, horrela, hobekuntza batzuk lortuko bazenitu, zure semea edo alaba bertan inskribatuta mantenduko zenuke? (%)


Si las actividades deportivas que practica tu hijo o hija costasen un 50% más de lo que pagas actualmente, obteniendo así una serie de mejoras, ¿mantendrías inscrito a tu hijo o hija en ellas? (%)




Zeintzuk dira zure semea edo alaba kirolen bat egiteko izena emateko bi arrazoi nagusiak (%)

¿Cuáles son los dos principales motivos por los que inscribes a tu hijo o hija para practicar algún deporte? (%)

LEHENENGO ARRAZOIA
PRIMER MOTIVO




BIGARREN ARRAZOIA
SEGUNDO MOTIVO





Zein da kirolari zure semearen edo alabaren bizitzarako ematen diozun balioa (%)

¿Cuál es el valor que le das al deporte para la vida de tu hijo o hija? (%)



EGITEN DITUZTEN KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS QUE PRACTICAN

Haur horien % **42,8 INGELESEKO** klaseetara joaten da, eta % **7,9 MUSIKARA**.
 Gainerako jarduerak % 3 baino gutxiagok egiten dituzte.

El **42,8%** de estos niños y niñas **acude a clases de INGLÉS** y el **7,9% de MÚSICA**.
 Las demás actividades son realizadas por menos del 3%.


EGITEN DITUZTEN KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERAK (ERANTZUN ANIZKOITZA) ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS QUE PRACTICAN (RESPUESTA MÚLTIPLE)

	%		%
Ingeles / Inglés	42,8	Marrazketa / Dibujo	0,7
Musika / Música	7,9	Katekesi / Catequesis	0,5
Margolaritza / Pintura	2,3	Trikitixa	0,5
Euskera, frantses, aleman / Euskera, francés, alemán	2,1	Sukaldaritza / Cocina	0,5
Errefortzu klaseak / Clases de refuerzo	1,6	Abesbatza / Coro	0,4
Antzerki / Teatro	1,4	Informatika / Informática	0,4
Robotika / Robótica	1,1	Joskintza, moda / Costura, moda	0,4
Zirku / Circo	1,1	Gitarra / Guitarra	0,4
Arte, eskulanak / Arte, manualidades	0,9	Pandero	0,4
Matematika / Matemáticas	0,9	Bertsolaritza	0,2
Piano	0,9	Aisialdia / Tiempo libre	0,2
Zientzia, fisika kimika / Ciencia, física, química	0,9	Biolin / Violin	0,2

3 EMAITZAK RESULTADOS

Imajinatuko dugu kirol-jarduerak eta beste jarduerak bat datozela egun eta ordu berean, eta, gainera, prezio bera dutela. Bietako zeini emango zenioke izena zure semeari edo alabari, horietako bat bakarrik aukeratu ahal izango bazenu? (%)

Vamos a imaginar que las actividades deportivas y las otras actividades coinciden en el mismo día y a la misma hora y que, además, tienen el mismo precio, ¿a cuál de los dos tipos le apuntarías si sólo pudieses elegir uno de ellos? (%)




3.5 Entrenatzaileak, monitorea, irakasleak

Entrenadores, entrenadoras, monitores,
monitoras, profesorado

Zure ustez, zure semearen edo alabaren entrenatzaileek prestakuntza edo gaitasun nahikoa dute betetzen duten funtziorako?

¿Consideras que las personas que entrenan a tu hijo o hija están suficientemente formadas o capacitadas para la función que desarrollan?


KIROL-JARDUERETAN (%) EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS (%)



Zure ustez, zure semearen edo alabaren kirolekoak ez diren jardueretako irakasleak, begiraleak... behar bezala prestatuta edo gaituta daude betetzen duten eginkizunerako?

¿Consideras que el profesorado, monitores, monitoras... de las actividades no deportivas de tu hijo o hija están suficientemente formadas o capacitadas para la función que desarrolla?

KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERETAN (%) EN ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS (%)






Zure semearen edo alabaren entrenatzaileek soldata egokia kobratzen dutela uste duzu?

¿Crees que cobran un sueldo adecuado las personas que entrenan a tu hijo o hija?


KIROL-JARDUERETAN (%)
EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS (%)



Zure zure semearen edo alabaren kirolekoak ez diren jardueretako irakasleak, begiraleak... soldata egokia kobratzen dutela uste duzu?

¿Crees que el profesorado, monitores, monitoras... de las actividades no deportivas de tu hijo o hija cobran un sueldo adecuado?

KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERETAN (%)
EN ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS (%)






Zure semearen edo alabaren entrenatzaileek lan-kontratua dutela uste duzu?

¿Crees que tienen un contrato laboral las personas que entrenan a tu hijo o hija?


KIROL-JARDUERETAN (%)
EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS (%)



Zure zure semearen edo alabaren kirolekoak ez diren jardueretako irakasleak, begiraleak... lan-kontratua dutela uste duzu?

¿Crees que el profesorado, monitores, monitoras... de las actividades no deportivas de tu hijo o hija tienen un contrato laboral?


KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERETAN (%)
EN ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS (%)



Zer balorazio emango zenieke zure semearen edo alabaren entrenatzaileei: 1 txarrena eta 10 baloraziorik onena izanik?

¿Qué valoración darías a los entrenadores o entrenadoras de tu hijo o hija siendo 1 la peor y 10 la mejor valoración?


KIROL-JARDUERETAN (%)
EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS (%)



Zer balorazio emango zenieke zure semeak edo alabak kirolekoak ez diren jardueretan dituen irakasleei (edo monitoreei), balorazio txarrena 1 eta onena 10 izanik?

¿Qué valoración darías al profesorado (o monitores, monitoras) de las actividades no deportivas de tu hijo o hija, siendo 1 la peor valoración y 10 la mejor?

KIROLEKOAK EZ DIREN JARDUERETAN (%)
EN ACTIVIDADES NO DEPORTIVAS (%)





Kirol-jardueretako entrenatzaileen eta kirolekoak ez diren jardueretako irakasleen eta begiraleen arteko alderaketa:

Comparativa entre entrenadores y entrenadoras de actividades deportivas y profesorado, monitores y monitoras de actividades no deportivas:

1. PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA FORMACIÓN Y CAPACITACIÓN

Kirol-jardueretan, familien % 92,3k uste dute entrenatzaileak behar bezala prestatuta daudela, eta kirolekoak ez diren jardueretan, berriz, ehuneko hori zertxobait altuagoa da, % 95,6ra iristen baita. Bi kategoriek pertzepzio positiboa erakusten dute langileen prestakuntzari dagokionez.

En actividades deportivas, el 92,3% de las familias considera que los entrenadores y entrenadoras están suficientemente formados, mientras que en actividades no deportivas, este porcentaje es ligeramente más alto, alcanzando el 95,6%. Ambas categorías muestran una percepción positiva en términos de la preparación del personal.

2. ORDAINSARIA REMUNERACIÓN

Familien % 75,6k ez daki kirol-jardueretako entrenatzaileek soldata egokia jasotzen duten, eta % 13,2k bakarrik uste du baietz. Kirolekoak ez diren jardueretan, familien % 68k uste dute irakasleek eta begiraleek soldata egokia jasotzen dutela, eta % 29k ez dute ziurtasunik. Bi kategoriek ordainsariari buruzko ziurgabetasuna islatzen dute, eta kirol-jardueretan nabarmenagoa da.

El 75,6% de las familias no sabe si los entrenadores y entrenadoras de actividades deportivas reciben un sueldo adecuado, mientras que solo el 13,2% cree que sí. En actividades no deportivas, el 68% de las familias cree que el profesorado, monitores y monitoras recibe un sueldo adecuado, y un 29% no tiene certeza. Ambas categorías reflejan incertidumbre sobre la remuneración, siendo más marcada en actividades deportivas.



3. LAN-KONTRATUA CONTRATO LABORAL

Kirol-jardueretako lan-kontratuei dagokienez, familien % 62,5ek ez daki halakorik dagoen, eta % 30,2k baietz uste du. Kirolekoak ez diren jardueretan, familien % 79,3k uste du lan-kontratuak daudela, eta % 18,9k ez daki. Badirudi lan-kontratuei buruzko informazioa argiagoa dela kirolekoak ez diren jardueretan.

Respecto a los contratos laborales en actividades deportivas, el 62,5% de las familias no sabe si existen, mientras que el 30,2% piensa que sí. En actividades no deportivas, el 79,3% de las familias cree que hay contratos laborales, y el 18,9% no lo sabe. La información sobre contratos laborales parece ser más clara en actividades no deportivas.

4. JARDUNAREN BALORAZIOA VALORACIÓN DEL DESEMPEÑO

Kirol-jardueretako entrenatzaileek 10etik 8,45eko batez besteko nota lortu dute, eta kirolekoak ez diren jardueretako irakasle eta begiraleek, berriz, puntuazio altuxeagoa lortu dute, 10etik 8,56ko batez bestekoarekin. Bi kategoriek balorazio positiboak jasotzen dituzte, eta langileen jardunarekiko gogobetetze orokorra iradokitzen dute.

Los entrenadores y entrenadoras de actividades deportivas son valoradas con una nota media de 8,45 sobre 10, mientras que el profesorado, monitores y monitoras de actividades no deportivas obtiene una puntuación ligeramente más alta, con una media de 8,56 sobre 10. Ambas categorías reciben valoraciones positivas, sugiriendo una satisfacción general con el desempeño del personal.

Laburbilduz, bi kategorietako prestakuntzaren eta jardunaren pertzepzio positiboan antzekotasunak dauden arren, kirolekoak ez diren jardueren ziurtasun handiagoa erakusten dute ordainsariei eta lan-kontratuei dagokienez. Kirolekoak ez diren jardueretako irakasleen eta begiraleen balorazioa apur bat handiagoa da kirol-jardueretako entrenatzaileen balorazioarekin alderatuta.

En resumen, aunque hay similitudes en la percepción positiva de la formación y desempeño en ambas categorías, las actividades no deportivas muestran una mayor certeza en aspectos como la remuneración y los contratos laborales. La valoración del profesorado y monitores en actividades no deportivas es ligeramente superior en comparación con la valoración de los entrenadores en actividades deportivas.

4 ONDORIO OROKORRAK CONCLUSIONES GENERALES

1. GASTU-ALDEAK DIFERENCIAS DE GASTO

Argi eta garbi ikusten da gastu-aldea dagoela kirol-jardueren eta kirolekoak ez diren jardueren artean. Nahiz eta hileko batez besteko gastua txikiagoa izan kirol-jardueretan (43,7 euro) kirolekoak ez diren jarduerekin alderatuta (68,2 euro), familia gehienek egokitzat jotzen dute bi kategorietako gastua.

Se observa una clara diferencia de gasto entre actividades deportivas y no deportivas. Aunque el gasto mensual medio es menor en actividades deportivas (43,7 euros) en comparación con actividades no deportivas (68,2 euros), la mayoría de las familias considera adecuado el gasto en ambas categorías.



2. GASTUA HANDITZEKO PRESTASUNA DISPOSICIÓN A AUMENTAR EL GASTO

Funtsezko datu bat familiek gastua handitzeko duten prestasuna da. Familien % 73 prest egongo lirateke % 50 gehiago ordaintzeko kirol-jarduerengatik, eta % 63,7k gauza bera egingo lukete kirolekoak ez diren jarduerengatik. Horrek nabarmentzen du kirol arloan hobekuntzetan inbertitzeko joera handiagoa dagoela.

Un dato clave es la disposición de las familias a aumentar el gasto. Un 73% de las familias estarían dispuestas a pagar un 50% más por actividades deportivas, mientras que un 63,7% haría lo mismo por actividades no deportivas. Esto destaca una mayor predisposición a invertir en mejoras en el ámbito deportivo.

3. BI JARDUEREN ARTEAN AUKERATZEA ELECCIÓN ENTRE AMBAS ACTIVIDADES

Egun, ordu eta prezio berean kirol-jardueren eta kirolekoak ez diren jardueren artean, familien % 59,3k kirol-jarduerak aukeratuko lituzke, eta % 40,7k kirolekoak ez direnak. Horrek adierazten du lehentasuna ematen zaiela berdintasun-baldintzetan egiten diren kirol-jardueri.

En una elección hipotética entre actividades deportivas y no deportivas en el mismo día, hora y al mismo precio, el 59,3% de las familias optaría por las actividades deportivas, mientras que el 40,7% elegiría las no deportivas. Esto señala una preferencia mayoritaria por las actividades deportivas en condiciones de igualdad.

4. DIRU-SARREREN MAILAREN ARABERAKO ALDEAK DIFERENCIAS SEGÚN NIVEL DE INGRESOS

Gastuan eta gehiago ordaintzeko prestasunean aldeak daude, diru-sarrerren mailaren arabera. Diru-sarrera handienak dituzten familiek gehiago inbertitzen dute bi kategorietan. Hala ere, kirolekoak ez diren jarduerak gastu-igoera nabarmenagoa erakusten dute diru-sarrera handiagoekin, eta horrek kostu erlatibo handiagoko pertzepzioa adieraz lezake.

Existen diferencias en el gasto y la disposición a pagar más según el nivel de ingresos. Las familias con ingresos más altos tienden a invertir más en ambas categorías. Sin embargo, las actividades no deportivas muestran un aumento de gasto más marcado con mayores ingresos, lo que podría indicar una percepción de mayor costo relativo.

5. ENTRENATZAILE ETA BEGIRALEEN/IRAKASLEEN ARTEKO ALDEAK DIFERENCIAS ENTRE ENTRENADORES, ENTRENADORES Y MONITORES, MONITORAS Y PROFESORADO

Kirol-jardueretako entrenatzaileen eta kirolekoak ez diren jardueretako irakasle/begiraleen kategorian, kirol-esparruko ordainsariei eta lan-kontratuei buruzko zalantza handiagoa nabarmentzen da. Bi kategoriek balorazio handia duten arren, kirolekoak ez diren jarduerak puntuazio altuagoa lortu dute.

En la categoría de entrenadores y entrenadoras de actividades deportivas y profesorado, monitores y monitoras de actividades no deportivas, se destaca una mayor incertidumbre sobre la remuneración y los contratos laborales en el ámbito deportivo. Aunque ambas categorías son altamente valoradas, las actividades no deportivas obtienen una puntuación ligeramente más alta.



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus/kirolak